



TRAFIKO-LAN ISTRIPUAK (ALT)

E.A.E.ko UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN

"IN ITINERE" + "MISIOKOAK"

2013 – 2014 IKASTURTEA

Txostenaren zenb.: 8

Hezkuntza Saileko Lan arriskuen Prebentzioa

Segurtasun arloko arduraduna : Marivi Carazo Alcubilla

2014ko Abuztua



Langileei, eta dagokien beste guztiei, honako hau aditzera eman nahi diegu:

- 1) 2013-2014 ikasturtean in itinere gertatu diren istripuak eta beraien ondorioak, betiere, Lan Arriskuei aurre egiteko Zerbitzuari jakinarazitakoak.
- 2) Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak egin duen prestakuntza-saio honen ondorioak: STOP in itinere & misioko trafiko -istripuak!

Hau guztiak honetarako egin da:

- Langileen mugimendu alorrean jokabideak aldatu eta irizpide seguruak indartzea
- Etxetik lanerako joan-etorriak sor ditzakeen osasun-kalteak txikitzea

1. LANAREN EREMUKO BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA 2013-2014

a. Proiektuaren jatorria



BAGENUEN:

- Borondatea
- Moodle plataforma
- Hiru proposamen prestakuntzarako


BEHAR GENUEN:

- lanabesa balioztatu eta edukinak egokitu
- Langileentzako elkargunea (linka)
- 6. modulua osatu: Prebentzioa: LANAREN EREMUKO BIDE-SEGURTASUNA

NON

STOP IN ITINERE & MISIOKO TRAFIKO-ISTRIPUAK !

Ingurunea

Gidaria
Oinezkoa

Ibilgailua

b. Eginiko prestakuntzaren proposamena:**2013-2014 IKASTURTEA: STOP IN ITINERE & MISIOKO TRAFIKO-ISTRIPUAK!****Azpitulua:** "Zero Ikuspegia" estrategia



Antolatzen du: Segurtasun Sailak- Trafiko Zuzendaritzak- eta Hezkuntza Sailak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak

Laburpena:

- Onartzen ditugun istripuen tasen eta arrisku mailaren larritasunari buruzko hausnarketa egitea.
- Geure egiten ditugun arrisku-portaerak zeintzuk diren eztabaidatzea.
- Nola egin dezaket prebentzioa?

Helburua: Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetako langileek lanaldian pairatzen dituzten trafiko-istripuen ondoriozko lan-ezbeharren kopurua minimizatzea.

Nori zuzendua: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko irakasleei eta irakasle ez den pertsonal guztiari zuzendua.

1. lehentasuna: langile ibiltariak: Entzumena eta Hizkuntza, Pedagogia Terapeutikoa, HHiko irakasleak, Ospitaleak, ikuskariak, berritzeguneko aholkulariak, kontsultoreak, Gorputz Hezkuntzako eta Erlajioko irakasleak, Prebentzio delegatuak ...

Parte-hartzaileen kopurua: taldeko 50 pertsona

Mota: on line ikastaroa

Edukia: 6 modulu ditu:

- 0 modulu: Moodle 2.0. plataformari sarrera (ordu 1)
 - 1.modulu: istripuak, arazo global bat (ordu 1)
 - 2.modulu: Zergatik ditugu istripuak? (ordu 1)
 - 3.modulu: pertzepzioa, jarrera eta portaera (ordu eta erdi)
 - 4.modulu: arriskua (2 ordu)
 - 5.modulu: in itinere eta misioko istripuak (2 ordu).
 - 6.modulu (ordubete eta erdi)
- GUZTIRA: 10 ordu

Iraupena (orduak): 10

Izena emateko epea: 2014/02/13tik 2014/05/02ra bitartean

Ikastaro kopurua: 3

Ikastaroa egiteko datak	Hizkuntza
2014ko martxoaren 03tik martxoaren 31era	Gaz
2014ko martxoaren 17tik apirilaren 14ra	Gaz-Eus
2014ko maiatzaren 05etik ekainaren 06ra	Gaz-Eus

Hizkuntza : Gaztelania- Euskara. Bai ikastaroaren plataforma bai haren edukiak euskaraz eta gaztelaniaz dago eskura. 1. Ikastaroaren tutoretza gaztelaniaz izan zen.



Ikastaroaren ebaluazioa:

Ez dago edukin ebaluazioa aurreikusia, gure arreta edukin ikastean baino sentsibilizazioan jarria baita

Ikastaroa gainditu eta ziurtagiria eskuratu ahal izateko gutxienez ikastaroaren %80 a bete behar da. Honek dakartza: Foro guztietan partehartzea eta scorm guztiak ikustea

Izena emateko: formularioa webaren bitartez

b. Emaitzak

Ikastaroa egiten duten langileen kopurua:

Edizioak 2013-2014	GAI	EZ GAI*	GUZTIRA
1. Ikastaroa	17	36	53
2. Ikastaroa	17	32	49
3. ikastaroa	33	31	64
%40 gai	67	99	166

(*) EZ GAI honen barne ikastaroaren betebeharrak bete ez, ikastaroa bertan behera utzi nahiz hasi ere egin ez zutenak sartzen dira.



2. TRAFIKO-LAN ISTRIPUAK ¹ ARABAN (2013ko irailetik 2014ko uztaila arte):

Istrupuaren tokia:

	Bajarekin	Bajarik gabe	Guztira
In itinere istripuak	9	14	23
Ikastetxean	12	29	41
	21	43	64

23 istripuetatik 13 trafiko-istripuak izan dira

Institutura bizikletaz zihoan , erori eta lurraren kontra jo zuen" (3)

"Biribilgunean sartzean galgatzean atzean zetorren kotxeak jo zuen"

"Bide gurutze batean atzetik zetorren kotxea ez zen garaiz gelditu "(3)

"Etxera itzultzen zegoela semaforo anbarrean gelditu eta bere atzean zetorren kamioiak jo du"

"Semaforo gorri baten aurrean kotxea gelditu eta atzeko kotxea ez zen garaiz gelditu eta kotxea jo zuen"

"A-1 autobidean kamioi baten kontra jo zuen "

"Biribilgunean kotxe batek harrapatu zuen bizikletarekin lurrera erori zen"

"Lankide baten kotxean kopilotu bezala zihoan, aurrez aurreko kolpea hartu zuen "

Istrupuek eragindako lesio mota:

3	Azaleko lesioak (kolpeak...)
1	Lesio anitz
9	Lokatzeak, zaintiratuak eta bihurrituak

Lesionatutako gorputz-atala:

3	Lepoa
5	Bizkarra
1	Hanka, belauna barne
4	Gorputz osoa eta atal anitz

¹ ALT:Trafiko- lan istripuak.Trafiko istripua: Espazio publikoetakoak, eta ibilgailuak, gidariak, bidaiariak edota oinezkoak partaide dituztenak.



2. TRAFIKO- LAN ISTRIPUAK BIZKAIAN

(2013ko irailetik 2014ko uztaila arte):

Istripuaren tokia:

	Bajarekin	Bajarik gabe	Guztira
In itinere istripuak	41	42	83
Ikastetxean	83	156	239
Misioan edo Lanaldiko joan-etorrian	6	4	10
	130	202	332

In itinere gertaturiko istripuak zonaldeka:

Zonaldeak	ALT	Ez ALT	Guztira
BZ1	6	9	15
BZ2	7	14	21
BZ3	12	20	32
BZ4	8	7	15
	33	50	83

BIZKAIA 1. zonaldea:

"Semaforo gorrian geldirik zegoela kotxe batek atzekaldean jo zuen"

"Etxerako bidean gidatzen , bihurgune batean kotxea labaindu eta hesiaren kontra jo zuen"

"Ikastetxera zihoan, beste kotxe batek bere kotxea atzetik jo zuen"

"Bere aurrean ziren kotxeak gelditzen joan dira baina la istripua izan duenaren atzean zegoenak atzekaldean jo du"

"Lanera bizikletaz zihoan semaforoan gelditzean pedal automatikoaren kala ez atera eta erori zen"

"

BIZKAIA 2. zonaldea:

"Ura- planning"

"Zebrabidean gelditu zen, atzean zihoan kotxea gelditu zen baina honen atzekoa ez"

"Gidatzen zegoen eta lurra bustita , oso bihurgune itxia, kotxea irristatu eta direkzioa kontrolik gabe gelditu zen , guardarrailaren kontra jo zuen.

"Stop batean geldirik zegoela beste kotxe batek atzetik jo zuen"

"Gidatzen zihoan,errepidean 2 metro zabaleko zulo bat zegoen, ondo seinalizatua ez zegoena eta barrura erori zen"

"Lanera zihoan biribilgunearen kanpoko bidetik gidatzen zuen, ateratzean barneko bidetik zegoen beste kotxe batek jo zuen"

"Bere etxera bazkaltzera motorrez zihoan, bihurgune batean biratzean aurrean geldirik ziren kotxe batzuen kontra ez ematearren lorategi batean erori zen "

**BIZKAIA 3. zonaldea:**

"Etxera gidatzen zegoela *kontrako norabidean zetorren* kotxe batekin talka egin zuen"

"*Bizikletaz ikastetxera* zihoan, kotxe bat gehiegi hurbildu zitzaion urruntzeko asmotan zebilela *zulo batean bizikleta sartu* zaio eta erori da"

"*Bidea bustita zegoen*, kotxeak laprast egin, kontrola galdu eta bueltaka hasten da erdibitzailearekin kolpe hartu arte"

"Beste kotxe batek ceda el paso salto egin eta alboan jo zuen"

"*Euriaren ondorioz* aurreko kotxea gelditu , niri kotxea gelditzean joan zait"

"Kotxez zetorren *semaforo gorrian gelditu* eta beste kotxe batek jo zuen"

"*Motorrez itzultzen, semaforo batean* gelditurik haize bolada batek bota zion otorra hankaren gainean"

"Gidatzen zegoela *furgoneta batek atzetik* jo zuen"

"*Lankide baten kotxean* zetorren eta beste kotxe batek atzetik jo zuen"

"*Errepidea labain zegoen* eta kotxearen irteera eta iraulketa"

"Udaleko *txirringa hartu* zuen aulkia mugitu eta buruz erori zen"

BIZKAIA 4. zonaldea:

"Lanetik etxera *bizikletaz* zihoan eta erori zen"

"Kotxe batek jo zuen"

"*Stop batean gelditu* eta atzeko kotxeak jo zuen"

Lurralde historiko honetan **lanaldiko joan-etorrian** gertatu diren 10 istripuetatik 1 besterik ez dugu trafiko-istripuztat jotzen.

"TIC'S dinamizatzailearen karguagatik Tknikara ikastaro batera joan beharra zuen. *Errepidean zerbait zegoen*, kotxeak kontrola galdu eta babes-listoiaren kontra jo zuen"



Istripuek eragindako lesio mota: (34):

10	Azaleko lesioak (kolpeak...)
4	Lesio anitz
2	Hezur-haustea
14	Lokatzeak, zaintiratuak eta bihurrituak
4	Lesio mota ezezaguna edo zehaztu gabe

Lesionatutako gorputz-atala:

7	Lesionatutako gorputz-atala, zehaztu gabe
1	Burua
13	Lepoa
2	Bizkarra
3	Goiko gorputz-adarrak
2	Besoa
1	Eskua
2	Beheko gorputz-adarrak
1	Hanka, belauna barne
1	Oina
6	Gorputz ososa eta atal anitz



2. TRAFIKO-LAN ISTRIPUAK GIPUZKOAN (2013ko irailetik 2014ko uztaila arte):

Istripuaren tokia:

	Bajarekin	Bajarik gabe	Guztira
In itinere istripuak	14	13	27
Ikastetxean	56	136	192
Misioan edo Lanaldiko joan-etorrian	2	5	7
	72	154	226

In itinere izandako istripuak zonaldeka:

Zonaldeak	ALT	Ez ALT	Guztira
GZ1	10	8	18
GZ2	5	4	9
	15	12	27

GIPUZKOA 1. zonaldea:

"AutobusaK balaztatu zuen eta langileak oreka galdu eta lurrera erori zen"

"Kotxeko gurgila zulatu eta bazterbidera joan zait"

"Bizikletaz zetorren eta kotxe bati toki librea uztearren bizikletatik erori zen"

"Semaforo berde zegoela beste kotxe batek aurrez jo zuen"

"Ikasle baten amarekin bilera izan ostean biribilgune batera sartzeko kotxea gelditu eta beste batek jo zuen"

"Atzera zihoan kotxe baten kontra jo du"

"Lanera bizikletaz zetorren eta gurgilean zerbait trabaturik gelditu zen"

"Gasolio-isuriagatik istripu anitz batean"

"Etxera itzultzen kotxe batek harrapatu zuen"

GIPUZKOA 2. zonaldea:

"Trenetik zetorren eta bizikleta batek harrapatu zuen"

"Gidatzen zegoela kamioi baten kontra jo zuen"

"Kotxea joan zaio eta irauli egin da"



Gipuzkoan lanaldiko joan-etorrian 7 istripu izan dira, haietako bat trafiko-istripu bakarra .

“Irakasle ibiltaria bihurgune batean sartzean, kotxea irristatu eta mendiaen kontra joan zen”

Istripuek eragindako lesio mota: (16):

6	Azaleko lesioak (kolpeak...)
3	Lesio anitz
1	Hezur-haustea
3	Lokatzeak, zaintiratuak eta bihurrituak
3	Lesio mota ezezaguna edo zehaztu gabe

Lesionatutako gorputz-atala:

5	Lesionatutako gorputz-atala, zehaztu gabe
3	Lepoa
1	Sorbalda
1	Eskualde pelbikoa
3	Hanka, belauna barne
3	Gorputz osoa eta atal anitz